


# GR 286

## Araindarri

## (Hiru Tenpluen) ibilbidea

4. etapa > Brinkola - Arantzazu

10,6 Km / 4 h 30 min

**DSS2016 GRSAREA** Gipuzkoako Natur Gune Babestu guztiak batzen dituzten 7 GRz osatua dago

Ireki diren bide berriei esker, bizimodu osasuntsua eta ingurunearekiko errespetua sustatuko dituen ondare kulturala aberasten da. Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatu du egitasmo hau DSS2016 Europako Kultur Hiriburuarekin elkarlanean.

**La RedGR DSS2016** consta de 7 GRs que aúnan todos los Espacios Naturales Protegidos de Gipuzkoa.

Gracias a los nuevos tramos abiertos, se enriquece un legado cultural que promueve un modo de vida saludable y el respeto al medioambiente. Este proyecto ha sido promovido por la Diputación Foral de Gipuzkoa en colaboración con DSS2016 Capital Europea de la Cultura.

DSS2016.EU

GR SAREA




Profila
Perfil




Luzera | Longitud
10,6 km

Desnibela | Desnivel
+875 m / -590 m

## MIDE

| Ingurunea Medio | Ibilbidea Itinerario | Desplazamendua Desplazamiento | Ahalegina Esfuerzo | MIDE ordutegia Horario MIDE |
|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 2 | 3 | 4 h 30 min |
| **Inguruan arriskuak egon daitezke** El medio no está exento de riesgos | **Jarraipena adierazten duten bideak edo seinaleztapena** Sendas o señalización que indica la continuidad | **Mandabideak** Marcha por caminos de herradura | **3 eta 6 ordu arteko ibilaldi jarraia** De 3 a 6 horas de marcha efectiva | (( 112 )) SOS DEIAK |

+ INFO

+ info MIDE
www.mide.org

## Bide-markak
Señalización

| Ibilbidearen jarraipena | Norabide aldaketa | Norabide okerra |
|---|---|---|
| Continuidad de sendero | Cambio de dirección | Dirección errónea |

+ INFO



www.gipuzkoamendizmendi.eus
www.gipuzkoaoinez.eus

## Jarraitzeko arauak | Recomendaciones a tener en cuenta

**Txakurrak beti lotuta eraman.**
Los perros deberán ir atados.

**Saiatu mendira bakarrik ez joaten.**
Intenta no ir nunca solo al monte.

**Abeltzaintza estentsiboko eremu batean zaude. Bidean aurkitzen dituzun langak, txabolen ateak eta abar ez utzi zabalik.**
Te encuentras en una zona de uso ganadero extensivo. Cierra las barreras, puertas de cabaña, etc. que te encuentres por el campo.

**Ez ezazu zaborrik lurperatu edo bota.**
No abandones ni entierres la basura.

**Ez egin surik eta ez bota piztutako zigarrorik.**
No hagas fuego ni abandones cigarrillos encendidos.

** Gipuzkoako Mendien urriaren 20ko 7/2006 FORU ARAUA.*

## Legenda
Leyenda

**Ibilbide hasiera**
Inicio de sendero

**Monolitoa**
Monolitos

# GR 286

Zumaiatik Arantzazura doan mendi Ibilbide Luze (GR) honek Euskal Kostaldeko Geoparkea Aizkorri-Aratz Natur Parkearekin lotzen du, Izarraitz KBEa ere gurutzatzen delarik. Harriarekin duen harremana eta harri horiek sortzen duten zirrara dira bide honen ezaugarri nagusiak: Flyscheko, Ekaingo, Izarraitzeko eta Aizkorri-Aratzeko harriek aspaldiko garaien oihartzunak dakartzate; Loiolako santutegiko, Antio baselizako eta Arantzazuko santutegiko harriek, berriz, haraindiko hotsak; eta Mirandaolako eta Brinkolako burdinola-errota guneetako harriek, azkenik, garai bateko industriaren zalaparta.

Este sendero de Gran Recorrido parte de Zumaia y finaliza en Arantzazu uniendo en el recorrido el Geoparque de la Costa Vasca con el Parque Natural Aizkorri-Aratz y atravesando, también, el ZEC Izarraitz. La relación con la piedra y las emociones que esas piedras provocan son la característica principal del sendero: las piedras del Flysch, Ekain, Izarraitz y Aizkorri-Aratz transportan ecos de épocas lejanas; las piedras del santuario de Loiola, la ermita de la Antigua y el santuario de Arantzazu, en cambio, los ecos del más allá y las piedras de los complejos ferro-molineros de Mirandaola y Brinkola, finalmente, el fragor de la industria de antaño.

## Interes puntuak | Puntos de interés

a



BARRENDIOLA URTEGIA: 1981 urtean amaitu zuten Legazpiko urtegi honen eraikuntza. Modu horretan, Gipuzkoako urtegi sarea osatua geratu zen ondorengo uharkekin: Aixola, Barrendiola, Urkullu, Lareo, Ibai-Eder, Arriaran, San Anton, Añarbe eta Ibiur. Guztira: 79 hektometro ur gordetzeko gaitasuna dago.

EMBALSE DE BARRENDIOLA: La construcción de este embalse de Legazpia finalizó el año 1981. De este modo se completó la red de embalses de Gipuzkoa con las siguientes presas: Aixola, Barrendiola, Urkullu, Lareo, Ibai-Eder, Arriaran, San Anton, Añarbe e Ibiur. En total hay una capacidad de almacenaje de 79 hectómetros.

b



KATABERA MEATEGIA: Aizkorri-Arazko inguru karstikoan kokaturik dauden meategi hauetatik calamina, blenda eta galena zituen espato kare-harrizko zain bat ustiatu zen. Mea Udanaraino garraiatzen zen, astoz lehenengo garaietan eta polea sistema baten bitartez ondoren. Lanak “Real Compañía Asturiana de Minas”ek egin zituen 1872 urtetik 1935 urteraino.

MINAS DE KATABERA: De estas minas situadas en el medio cárstico de Aizkorri-Aratz se explotó una vena de espato de cal que contenía calamina, blenda y galena. El mineral se transportaba hasta Udana, en los primeros tiempos en burro y posteriormente mediante un sistema de poleas. Los trabajos los realizó la “Real Compañía Asturiana de Minas” entre los años 1872 y 1935.

c



ARANTZAZU SANTUTEGIA: 1468 urtean Rodrigo Baltzategi artzainak ama-birjinaren harrizko irudi bat aurkitu zuen elorri baten arantzen artean. Berria zabaltzen joan zen heinean erromesen etorrera handitu egin zen. Horren ondorioz, hasieran kapera txiki bat zena, 1514tik Frantziskotarrek zaindua, gaur egungo santutegi ikusgarri bilakatu da.

SANTUARIO DE ARANTZAZU: En el año 1468 el pastor Rodrigo Baltzategi encontró, entre las espinas de un espino, una imagen de piedra de la virgen. A medida que la nueva se fue extendiendo la llegada de peregrinos fue en aumento. Debido a ello, lo que en un principio fue una pequeña capilla, protegida por los Franciscanos desde 1514, acabó convirtiéndose en el espectacular santuario que es hoy en día.

arazi
Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa
DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016 EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA DSS2016.EU
LEGAZPIKO UDALA
Oñatiko Udala
Gipuzkoako Mendizale Federazioa